

## ReciclApp-Birziklapp. Hondakinen birziklapenari buruzko sakeleko telefonoetarako aplikazioa

Zalantzan zaude eta ez duzu argi non utzi hondakin mota batzuk? Ondoren nola birziklatzen diren jakin nahi duzu? Jaitsi BirziklApp aplikazioa eta argitu zure zalantzak.

**Reciclapp-Birziklapp** sakeleko telefonoetarako aplikazio bat da, Nafarroako hondakinen birziklapenaz dituzun zalantzak argitzeko eta horri buruz gehiago jakin dezazun. Horren bidez jakinen duzu **zer edukiontzitan sartu behar den hondakin bakoitza, non dauden kokatuta garbiguneak, non edukiontzi berezi batzuk (arropa, olioak, pilak, etab.), non auzoko konpostajerako eremuak, bai eta tamaina handiko hondakinak biltzeari buruzko informazioa ere.** Horrez gain, Udaleko argibideen bitartez, gauza gehiago ere jakinen duzu, hau da, Nafarroako hondakinak nora eta zertara bideratzen diren.

Tresna hau [Nafarroako Gobernuak](#) Hondakinak Kudeatzeko Sistema Integratuekin, [Ecoembes](#) nahiz [Ecovidrio](#) enpresekin, eta tresna elektrikoaren eta elektronikoen hondakinak (TEEH) kudeatzeko sistema integratuen erakunde kudeatzaileekin eginak dituen hitzarmenen baitan: [Ambilamp](#), [Ecoasimelec](#), [Ecofímica](#), [Ecolec](#), [Ecolum](#), [ECORAEE](#), [Ecotic](#), [Europako Birziklapen Plataforma-ERP](#) eta [Tragamóvil](#), egin da. Hitzarmenak [Gestión Ambiental de Navarra](#) (GAN) enpresaren bidez garatu dira Baztango Udalaren laguntzarekin.



Nola erabili BirziklApp?

Oso erraza da aplikazioa erabiltzea:

- Jaitsi doan edozein aplikazio-dendatatik.
- Aukeratu zure herria.
- Aukeratu zure gogoko hizkuntza.
- Erabil ezazu.

Herriz edo hizkuntzaz aldatu nahi baduzu, jo "Ezarpenetara"

*Jaitsi doan!!*

Jaitsi doan ReciclApp - BirziklApp Apple-ko App Store-an edo Google Play Store-an